

emaus
GIZARTE FUNDAZIOA

www.emaus.com
fundazioa@emaus.com



**MUSIKA · ZINEMA · DANTZA · ANTZERKIA
ERAKUSKETAK · MURALISMOA
LANTEGIAK · SOLASALDIAK**

NOMADA

KULTURA PARTE-HARTZAILEAREN FESTIBALA

EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA

AZAROA **6 · 8 · 9 · 13 · 14 · 15**

ARRASATE | DERIO | ERRENTERIA | IRUN



**KUTXA
FUNDA
ZIOA**



NOMADA FESTIBALAREN BIGARREN EDIZIOA

ARTEA, KULTURA ETA PARTE-HARTZE
KOMUNITARIOA

Nomada Festibala sinetsita dago pertsona guztiok dugula kultura sortzeko eta gozatzeko eskubidea eta gaitasuna, komunitate inklusibo eta eraldatzaileak eraikitzeko ondasun komun gisa. Gainera, gizarte gero eta zatikatuagoetan, kultura komunitarioa funtsezkoa bihurtzen da gizartea indartzeko sareak ehuntzeko.

Arriskuan edo egoera zaurgarrian dauden pertsonen bizipenak, begiradak eta sentimenduak islatzen dituzten jarduera ibiltarien bidez, Nomada festibalak artea eta kultura elkarrekin sortzeko prozesu pluralak bultzatzen ditu, doakoak eta publiko guztientzat irekiak.

Festibala **azaroaren 6tik 15era** egingo da **Arrasaten, Derion, Erreterian eta Irunen**, Emaus Gizarte Fundazioak lankidetzakomunitarioaren alorrean presentzia eta ibilbide sendoa duen udalerrietan.

ARTISTA ETA KULTURA-ERAGILE LAGUNTZAILEAK

Joseba Parron
DAB Bitartekaritza Taldea
Itxaso Navarro
Eli Pagola
Maidier Arregi
Oihana Arana
Gu Haziak Gara
Kroma Artisau Elkarte
Ane Zaldibar
ArakneLab
GriGri Projects
Artaziak
Monique Leivas
ZineLab
Harrotu Ileak
Alain Fanegas
Onavibe
SOS Arrazakeria Gipuzkoa
Joana Manzisidor
Jaiki Elkarte
Aritz Albaizar
Véala
BBT
Moviltik
Trakamatraka
Hibernando Estudio
María Arriera
Alabazan
Festival Internacional de Títeres de Bilbao
Nagore Fernández
Ane Zuazubiskar
Xenpelar Bertso-Eskola
Emaitz Murua

HISTORIAK AZALERATZEN DITUZTEN ARGAZKIAK



“Barne Begiradak” erakusketa **Joseba Parrón** argazkilariak zuzendutako prozesu parte-hartzailea da, eta han, argazkia adierazteko tresna boteretsu bihurtzen da. Parte-hartzaileek beren interes sakonak islatzen dituzten irudiak atzematen dituzte, baina ikuspegi bakar eta esperimentalarekin: aurpegia edo gorputza erakutsi beharrean, objektuak, paisaiak eta horiek irudikatzen dituzten beste elementu batzuk esploratzen dituzte, eta hala, hausnarketa bat sustatzen da, alderdi intimoak eta benetakoak agerian uzten dituena.

Horren emaitza argazkiekin osatutako erakusketa bat da, irudi bakoitzaren zergatia azaltzen duten testuekin batera, eta irudi bakoitzaren atzean ezkutatzen diren istorioak eta emozioak ezagutzera gonbidatzen dute publikoa.

ERRETERIA

ALDAKONEA UDAL LIBURUTEGIA
AZAROAK 6 - ABENDUAK 9

BOTIKIN NOMADA BAT NIRE HIRIRAKO



Arrasateko, Erreterriako eta Irungo Emaus Gizarte Fundazioaren programa sozialei lotutako hainbat pertsonak arazo komunak identifikatu dituzte, eta gure bizitza komunitarioa hobetzeko erremedioak diseinatu dituzte modu kolektiboan. Botikin tradizional baten ordean, harrera-eremu bat sortu da hirian, loturak eta ongizate kolektiboa eraikitzeko funtsezko objektuekin.

GriGri Projects kolektiboak emandako prozesu parte-hartzaile honen ondorioz, inplikaturako udalerrietan identifikaturako erremedioak modu grafikoan jasotzen dituen gailu artistiko bat sortu da.

Baina gailu hori ez dago osorik, herritarren laguntza behar dugu, komunitatea ehuntzeko modu bakarra, gure bizitzak hobetzen dituen guztia jaso eta guztion eskura jarri ahal izateko. Horregatik, gailua Nomada izango da, gure jaialdia bezala, eta une desberdinetan egongo da presente, elkarrekin elikatzen joan gaitezen. Lagunduko diguzu?

ERRETERIA

KOLDO MITXELENA HERRI ESKOLA
AZAROAK 9
11:00 - 13:30

IRUN

URDANIBIA PLAZA
AZAROAK 9
18:30 - 20:00

ARRASATE

EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA DENDA
AZAROAK 14
18:00 - 19:30

DANTZAN, ETXERAKO BIDEAREN BILA



ERRETERIA

NIESSEN
AZAROAK 6
18:30 - 20:00

ARRASATE

EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA DENDA
AZAROAK 14
18:00 - 19:30

ERRETERIA

DAB Bitartekaritza Taldearekin lankidetzan, prozesu kolektibo bat bultzatu da "Etxerako bidearen bila" koreografia sortzeko, Emaus Gizarte Fundazioko gizarte-zerbitzuei lotutako pertsonen emozioetan eta bizipenetan oinarrituta. Proiektuan **Itxaso Navarro** artista musikalak eta **Eli Pagola, Maider Arregi eta Oihana Arana** bertsolariek parte hartu dute doinua sortzeko. Jantziak sormen-prozesu baten bidez egin dira **Gu Haziak Gara** elkartearekin, eta hala, ehungintzan ibilbide luzea duten emakume migratuek ere hartu dute parte.

Ikuskizuna jaialdiaren bi unetan ikusi ahal izango da. Erreterian, "Nun zira?" obrarekin batera (DAB-Easo Abesbatza). Ondoren, solasaldi bat izango da, Radio Rebelde taldeko abeslariak, **Nagore Fernándezek**, dinamizatuta. Bertan, protagonistek artearen botere eraldatzaileari buruz hausnartuko dute, beren esperientzietatik eta testigantzetatik abiatuta. Saioan, gainera, Erreterriako **Xenpelar Bertso-Eskolaren** laguntza izango da.

ARRASATE

Jaiki Elkarteak dinamizatutako gorputz adierazpeneko tailer batez ere gozatu ahal izango da ekitaldi berean. Kasu honetan, **Ane Zuazubiskar** bertsolariak dinamizatuko du ekitaldia. Gune horretan bertan, Arrasateko Botikin Nomada elikatu ahal izango dugu, **GriGri Projectsekin** lankidetzan egina, eta gure komunitateak hobetzeko erremedioak identifikatzeko aukera izango dugu.

BAZTERRAK
ZEHARKATZEA
HIRIETAN
BIZITZEA

ZINEMA KOMUNITARIOA BEGIRADAK ALDATZEKO



IRUN

Beste mundu posible batzuk erakusteko apustuan, zinema beti egon da eraldaketa sozialaren abangoardian. Hala ere, diziplina horrek beste pauso bat eman du. Beste errealitate batzuk erakusteaz gain, teknologia berrien garapenari esker, isilaraziak izateko joera duten pertsonak ahotsa altxatu ahal izan dute bitarteko horren bidez. Horixe egin dute **Harrotu Ileak** eta **ZineLabek** "Sueños de viernes" film laburraren sorkuntzan. Donostiako kaleetan bizi diren magrebtar gazteek asmatu eta protagonizatu dute modu esperimentalean.

Era berean, zinemaren magia istorioak kontatzeaz harago doa. Hala, ZineLabek kamerarik gabe zinema sortzeko aukera eskainiko digu. Posible al da hori? Zatoz deskubritzera!

Tailerraren eta proiektzioaren ondoren, solasaldi bat egingo da parte hartzeko prozesu horiei buruz eta zinema komunitarioak gaitasunak indartzeko duen zereginari buruz, bai eta sentsibilizatorako eta aldaketa sozialerako egiten duen ekarpenari buruz ere.

IRUN

AMAIA KULTUR ZENTROA

AZAROAK 8

17:00 - 19:00

ZINEMA KAMERARIK GABE ZINELAB

19:00 - 20:00

SUEÑOS DE VIERNES HARROTU ILEAK

SOLASALDIA

DERIO

AZAROAK 14

GUREA ARETOA

11:00 - 12:00

DERIO

2023an, **Aritz Albaizar** errealizadorearekin lankidetzan aritu ginen "La vuelta" film laburrean, Derioko Emauseko Eguneke Zentroarekin lotura zuten eta bazterketa sozialeko egoeran zeuden pertsonak protagonista zirela. Proiektuak harrera ona izateak esperientzia errepikatzen bultzatu gaitu, eta zinemaren aldeko apustua egin dugu, adierazteko eta parte hartzeko tresna gisa. Film labur berriaren estreinaldia Nomada Jaialdian izango da, eta solasaldi bat eta protagonisten testigantzak ere entzun ahal izango dira.

BAZTERRAK
ZEHARKATZEA
HIRIETAN
BIZITZEA



MUSIKA: AUKERA AMAIGABEAK

IRUN

Alain Fanegas DJarekin eta Onavibe bandarekin elkarlanean, biak Irungo musika-kulturan oso presente, Zubia egoitza eta eguneko zentroko pertsonak musika-sorkuntzaren aukera amaigabeak aztertu ahal izan dituzte. Prozesua publikoari irekitako kontzertu batekin amaituko da, non lankidetzaren artistikoen emaitzak aurkeztuko diren.

Gune horretan bertan, Irungo Botikin Nomada elikatu ahal izango dugu, **GriGri Projectsekin** lankidetzaren egina, eta gure komunitateak hobetzeko erremedioak identifikatzeko aukera izango dugu.

IRUN

URDANIBIA PLAZA
AZAROAK 9
18:30 - 20:00

DERIO

GUREA ARETOA
AZAROAK 14
12:00 - 13:00

DERIO

Trakamatrakaren eskutik, gizarteak baztertutako objektuak musika-tresna zoragarri bihurtzen dituen ikuskizun bat aurkezten da. Ekitaldi interaktibo eta parte-hartzailea, inoiz soinu egiten imajinatuko ez zenituzkeen tresna ezohikoei bizia emateko.



MURALISMOA GURE LOTURAK SENDOTZEKO

ARRASATE

Kultura-sorkuntza kolektiboa modu paregabea da bestela gertagaitzak liratekeen harremanak ehuntzeko. Hori da, halaber, Izan Harreraren helburua, **SOS Arrazakeria Gipuzkoak** sustatutako mentoretza sozialeko programa, errefuxiatuak eta lurraldean finkatuta dauden pertsonak konektatzen dituen, biek beren sareak indartu ahal izan ditzaten. Erakunde horrekin lankidetzan, kulturak gizartea eraldatzeko tresna gisa dituen aukerei buruz hausnartu dugu azken urteotan. Eta gogoeta horretatik dator Joana Manzidor artista arrasatearrak Emausen dendarako pentsatutako mural kolektiboa. Mentoretza sozialaren onurak sakon ezagutu ondoren, murala egingo da.

ARRASATE

EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA DENDA
AZAROAK 13
17:30 - 18:30 MENTORETZA SOZIALA ETA
BOLUNTARIO-LANA SOS ARRAZAKERIA
18:30 - 19:30 AURREZ AURRE
MURALAREN SORRERA JOANA MANZISIDOR

DERIO

GUREA ARETOA MURAL KOLEKTIBOETARA
BISITA GIDATUA
AZAROAK 15
12:00 - 13:00

DERIO

Hibernando Estudiok 2023ko Nomada Jaialdian "Ahotsak, tintak eta ekintza!" proiektuarekin izandako lankidetzari jarraituz, esku-hartze artistiko eta urbanoko teknikari buruzko prestakuntza-prozesu bat bultzatzen da. Tailer horietan eskuratutako ezagutza eta trebetasun plastikoak mural parte-hartzaileak sortzeko erabiliko dira, Derioko kaleak eraldatzeko eta kolorez betetzeko.

PROGRAMA



DERIO

GUREA ARETOA

15 DE NOVIEMBRE

BISITA GIDATUA

11:00 - 12:00

HARIEN AMETSAK TXOTXONGILOEN
ETA SOINU-KONTAKIZUNEN INSTALAZIORA

ITZALEN ANTZERKIA

17:30 - 19:00

DERIOKO HERRI IKASTETXEA, ALABAZAN,
BILBOKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA

TXOTXONGILOAK: AMETSAK EHUNTZEN DITUZTEN HARIAK

Emaus Gizarte Fundazioan material birziklatuekin egindako txotxongiloen botere eraldatzailearen alde egiten dugu, egungo arazoez sentsibilizatzeko eta sormen- eta gizarte-trebetasunak indartzeko estrategia gisa.

Derioko hainbat pertsona eta erakunderen parte-hartzearekin, zazpi txotxongilo sortu dira erabiltzen ez diren produktuetatik abiatuta, haiei bizia eta ahotsa emanez. Txotxongilo bakoitzak mundu, amets eta abentura berrietara garamatza, eta, aldi berean, benetako eta eguneroko problematikak jorratzen ditu, horiei aurre egiteko estrategiak eskainiz. **Véala** ikus-entzunezko artistaren eskutik, kontakizun guztiak bildu dira, eta haiei soinua eman zaie, eta, hala, esperientzia paregabe batean murgiltzera gonbidatzen gaituzte.

Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiarekin lankidetzan eta **Alabazan** taldearen eskutik, publiko guztientzako ikuskizuna aurkezten da, eta magia eta irudimena erabiltzeko gonbita egiten, beste mundu posible eta beharrezko batzuk amesteko.

COLLAGE + KULTUREN ARTEKO ELKARRIZKETA



DERIO

NAGUSIEN ETXEA

AZAROAK 13

17:30 - 19:00

SENDA sorkuntza kolektiboko proiektu artistikoa da, eta biodibertsitatea, memoria eta lurraldea aztertzen ditu basabizitzaren kartografia handi bat sortuz. Mapa horrek pieza grafikoak, collageak, tokiko landarediari buruzko kontakizunak eta Derioko ibilbide baten planoak hartzen ditu barnean. **María Arriera** eta **BBTren** koordinaziopean, proiektu horrek gure ingurune hurbilena berriz ezagutzera gonbidatzen gaitu, bai eta naturak taldeko bizitzan duen balioa aitortzera ere.

KULTURA KOMUNITARIOA SUSTATZEN DUTEN TAILERRAK

Azaroaren 9an, goizean, hainbat tailer egingo dira Erreterian, kultura komunitarioko obrak elkarrekin eraikitzen laguntzeko. Tailer horiek Jaialdiaren aurreko hilabeteetan Emaus Gizarte Fundazioko parte-hartzaileekin batera hasitako prozesuetako batzuk amaituko dituzte.

Baina guk komunitatea sortu nahi dugu. Horregatik, tailerrak publiko guztientzako izango dira. Zatozte parte hartzera!

KARTOIZKO FANZINEAK SORTZEA

Ane Zaldibar ilustratzaileak edukiak sortzeko prozesu bat dinamizatu du fanzine bat egiteko, Emaus Gizarte Fundazioko partaideen artean testuak eta iritziak trukatzuz. Material horiekin, koadernaketa-tailer bat egingo da jaialdian, eta udalerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute.

JOSTAILUEN SENDAETXEA

Hondakinen etengabeko sorrerarekin beti kezkatuta, Emaus Gizarte Fundazioak jostailuak berreskuratzeko prozesu bat egin du, **Kroma Artisau Elkartearekin** lankidetzan. Zehazki, gure dendetara iristen diren mahai-jokoak berrikusi dira, eta bitzta luzatzeko falta zaizkien piezak sortu dira taldean. Tailer horretan, errestaurazio-prozesu horretan parte hartu ahal izango dugu.

TRATU ONEN ARPILLERA

ArakneLabekin batera, arpillera ibiltari batsortuko da kolektiboki, komunitateak bizikidetzat hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak jasoko dituen. Tailer horretan, arpillera baten lehen puntadak emango dira, gero Emaus Gizarte Fundazioak kudeatzen duen ElkarGune zentrotako partaideek finduko dutena beste saio batean. Lehen puntada horiek (tolestura jostea, brodaturen bat egitea, sinboloren bat marraztea...) egoera zaurgarrian dauden pertsonekin bizikidetzat hobetzeko espazioak partekatzea ahalbidetuko duen prozesu baten hasiera izango dira.

BOTIKIN NOMADA

Gune horretan bertan, eta beste tailerrekin lankidetzan, Erreterriako Botikin Nomada elikatu ahal izango dugu, **GriGri Projectsekin** lankidetzan egina, eta gure komunitateak hobetzeko erremedioak identifikatzeko aukera izango dugu.



ERRETERIA

KOLDO MITXELENA HERRI ESKOLA
AZAROAK 9
11:00 - 13:30

PROGRAMA



DERIO

GUREA ARETOA

URRIAK 14

12:00 - 13:00

IKASLEEN PODCASTA

AHOTSAKEN, ikastetxeei behar dituzten baliabideak eta laguntza eskaintzen dizkiegu ikasleek beren podcasten atalak sor ditzaten, 2030 Agendaren helburuak modu ludiko eta pedagogikoan aztertzeko. **Moviltikekin** lankidetzan eta **Ganbara Gizarte Irratiaren** eskutik, **Politeknika Txorierriko** ikasleak gidoiak idazteko, soinu-baliabideak sortzeko eta audioak editatzeko abenturan murgildu dira, bizi eta eraiki nahi ditugun komunitate motetan oinarritutako podcastak, parte-hartzaileak eta berritzaileak, sortzeko (11. GJH). Lanik onenak ekitaldi zirrargarri batean sarituko dituzte, urriaren 14an, Derioko Gurea Aretoan.

MAHAI-INGURUA: KOMUNITATEAREN PARTAIDETZA KULTURA SORKUNTZAN



ERRETERIA

LEKUONA FABRIKA PLAZA BERDEA

AZAROAK 15

18:30 - 20:00

KOMUNITATEAREN PARTAIDETZA

KULTURA SORKUNTZAN

KULTURA ESKUBIDEAK

BEGIRADA-ALDAKETA

ARTAZIAK

GIZARTE-ERALDAKETARAKO

JUSTIZIA KULTURALA

MONIQUE LEIVAS

TRATU ONEN ARPILLERA

BIZIKIDETZA HOBETZEKO

ARAKNELAB

NIRE HERRIARENTZAKO BOTIKINA

GRIGRI PROJECTS

Amaiera gisa, eta festibalaren beraren esperientziatik ikasita, mahai-inguru bat egingo da, gogoeta egiteko nola laguntzen duen bizikidetzan eta pertsonen ongizatea hobetzen kultura- eta komunitate-sorkuntzako prozesuetan parte hartzeak. Horretarako, honako hauen laguntza izango dugu: gizarte-ekimeneko **Artaziak** kooperatiba, hezkuntza artistikoaren eta bitartekaritza kulturalaren esparruan lan egiten duena; **Monique Leivas** gizarte-ikertzailea, metodologia parte-hartzaile eraldatzaileen garapenean espezializatua; **ArakneLab** ekimena, joste-terapiaren eta antzerkiaren bidez prozesu komunitarioak sustatzen dituena; eta GriGri Projects, Ceuta hirirako eta Orriols (Valentzia) eta Vallekas (Madril) auzoetarako botikinak egiten izandako esperientzia kontatuko duena. Gainera, gure botikina elikatzen jarraitu ahal izango dugu.

KULTURA PARTE-HARTZAILEAREN FESTIBALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

KUTXA
FUNDA
ZIOA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia · Diputación Foral

Ayuntamiento  Udala
irun
www.irun.org


ERRETERIA
UDALA

 **DERIO**
UDALA / AYUNTAMIENTO

eMaUs
GIZARTE FUNDAZIOA

www.emaus.com
fundazioa@emaus.com



EKINTZEN EGITARAUA

AZAROA

6

8

9

13

14

15

ARRASATE



KULTURA PARTE-HARTZAILEAREN FESTIBALA
EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA

SOLASALDIA
EMAUS DENDA
17:30 - 18:30
LA MENTORÍA SOCIAL
Y EL VOLUNTARIADO
SOS ARRAZAKERIA

MURALISMOA
EMAUS DENDA
18:30-19:30
MURAL MARGOKETA

COLLAGE +
KULTURARTEKO
ELKARRIZKETA
NAGUSIEN ETXEA
17:30 - 19:00

DANTZA + LANTEGIA
EMAUS DENDA
18:00 - 19:30
- EN BUSCA DEL
CAMINO A CASA
- GORPUTZ ESPRESIO
TAILERRA
- JAIKI ELKARTEA
- NOMADA BOTIKINA

ZINEMA + PODCASTAK
GUREA ARETOA
11:00 - 13:00
- LABURMETRAIAK
- PODCAST
- SARIEN BANAKETA
- BERRERABILITAKO
INSTRUMENTUEKIN
MUSIKA EMANALDIA
TRAKAMATRAKA

TXOTXONGILOAK
GUREA ARETOA
11:00 - 12:00 BISITA GIDATUA

MURALISMOA
GUREA ARETOA
12:00 - 13:00 BISITA GIDATUA

ANTZERKIA
GUREA ARETOA
17:30 - 19:00
ITZAL-ANTZERKIA
ALABAZAN

DERIO

ERRETERIA

DANTZA + SOLASALDIA
NIESSEN
18:30 - 20:00
- EN BUSCA DEL
CAMINO A CASA
- NUN ZIRA?
DAB DANTZA KONPAINIA

LANTEGIA
KOLDO MITXELENA
HERRI ESKOLA
11:00 - 13:30
- JOSTAILUEN
SENDAETXEA
- ARPILLERA
- FANZINE SORKUNTZA
- NOMADA BOTIKINA

MAHAI - INGURUA
LEKUONA
18:30 - 20:00
KOMUNITATEAREN
PARTAIDETZA KULTURA
SORKUNTZAN
- ARTAZIAK
- MONIQUE LEIVAS
- ARAKNELAB
- GRIGRI PROJECTS

ERAKUSKETA BARNE BEGIRADAK AZAROA 6 / ABENDUAK 9

IRUN

LANTEGIA
AMAIA KULTUR ZENTROA
17:00-19:00
KAMARARIK GABEKO
ZINEMA ZINELAB

ZINEMA + SOLASALDIA
AMAIA KULTUR ZENTROA
19:00-20:00
SUEÑOS DE VIERNES
HARROTU ILEAK

MUSIKA
URDANIBIA PLAZA
18:30-20:00
- ALAIN FANEGAS +
ONAVIBE
- NOMADA BOTIKINA

www.emaus.com
fundazioa@emaus.com



emaus
GIZARTE FUNDAZIOA

